2. Erlijiotasunaren agiri iraunkorrak inguruan: mendietako gurutzeak, hilerri eta hilarriak, guruzbideak, ermitak edo baselizatxoak, hormazulotako irudiak, santutegiak (Begoña, Estibalitz, Arantzazu, Mikel Deunarenak han eta hemen...)

3. Zaindarien jaiak eta orohar, erlijio ospakizun herrikoiak; San Inazio, Berriotxoako Balentin santua, San Prudentzio, Xabierko Frantzisko santua, karmengo Ama Birgiña, itsasgizon eta emakumeen zaindaria...

4. Ohizkoak diren esaeratan nahiz kanta herrikoetan azaltzen diren gaiak, sarritan kristau fedean oinarriturikoak eta beste zenbaietatan sinismenaren elementuren bat edo beste agertzen dutenak. «Agur jaunak» eta bestelakoak...

**859**

AGINDUA, 1993ko martxoaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Lehen Hezkuntzako «Erlijio Katolikoa» alorraren kurrikuloa, Euskal Autonomi Elkarteari dagokiona, argitaratzen duena.

Ekainaren 14ko 1006/1991 Errege Dekretuz (26ko EBO) ezarri ziren Lehen Hezkuntzako nahitaezko irakasketak; irakasketok, hezkuntzako administrazioek euren lurralde eremuetarako zehaztu behar duten Lehen Hezkuntzako kurrikuloa osatuko dute. Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretuz finkatu ziren. Dekretu horretako 8. atalaren 3. idazatian ezartzen denez, elizan eskuduntza duen agintariak jarriko du Erlijio Katolikoa alorraren kurrikuloa.

Elizan eskuduntza duen agintariak erlijio katolikoaren kurrikuloa bidali ondoren eta abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretuko azken xedapenetatik lehenengoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari ematen dion baimenaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Lehen Hezkuntzarako den Erlijio Katolikoa alorraren kurrikuloa, agindu honen eraskin lez doana, argitaratzea.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko martxoak 8.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

2. Testimonios permanentes de lo religioso en el entorno: ejs: cruces en montes, encrucijadas y cementerios, ermitas, hornacinas, santuarios (Begoña, Estíbaliz, Aranzazu, San Miguel de Aralar, etc.)

3. Fiestas patronales y celebraciones religiosas con raigambre popular o fiestas populares que han tenido su origen en celebraciones cristianas, o en actitudes religiosas: San Ignacio, San Valentín de Berrio-Otxoa, San Prudencio, San Francisco Javier, la Virgen del Carmen, patrona de los hombres y mujeres del mar...

4. Expresiones presentes en la lengua habitual o en canciones populares que tienen origen, valor o referencia en algún elemento de la fe cristiana: ejs.: Agur Jaunak...

**859**

ORDEN de 8 de marzo de 1993, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se da publicidad al currículo del área de «Religión Católica» de la Educación Primaria para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Real Decreto 1006/1991, de 14 de junio («Boletín Oficial del Estado» del 26), estableció las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Primaria que deben formar parte del currículo de la Educación Primaria que las Administraciones educativas han de definir para sus ámbitos territoriales respectivos y que el Decreto 237/1992, de 11 de agosto («Boletín Oficial del País Vasco» del 27) fijaba para la Comunidad Autónoma del País Vasco. Por su parte, el apartado 3 del artículo 8 del citado Decreto determina que el currículo del área de Religión Católica será el establecido por la autoridad eclesiástica competente.

Por todo lo cual, una vez recibido de la autoridad eclesiástica competente el currículo del área de religión católica y en virtud de la autorización que la Disposición Final Primera del Decreto 237/1992, de 11 de agosto, confiere al Consejero de Educación, Universidades e Investigación,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Dar publicidad al currículo del área de «Religión Católica» para la Educación Primaria que se incluye en el Anexo a la presente Orden.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de marzo de 1993.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

ERASKINA

LEHEN HEZKUNTZA
ERLIJIO KATOLIKOA

1. SARRERA

Erlijio arloak bere barne hartzen duena, gizabizitzaren azken zentzuari buruzko errealitateen ezagupena da.

Izan ere, narrazioek osaturik, zeinu eta sinboloen bitartez, errito edo ohikuneak direla adierazgarri, sinismenaren arrazoizko formulapenetan, mundu-ikuspegi orokorrek moldatuta, adierazpen estetikoek aditzera ematen dutelarik, instituzio edo erakundeen bidelaguntzaz, etikazko portaera eta jokabideei oinarriak ezarriz ... giza jakinduriaren esparru nabarmen bat agertzen zaigu egituraturik, beste arlo guztietatik bereizten dena, bertan norberaren nahiz guztion sakon-sakoneko kuestioen tratamendua ardatz eta gai nagusi bihurtzen delako.

Gizabizitzaren sakoneko galderak eta kezkak pertsona guztioi ezinbestean eta barne-barnean dagozkigula, ezingo da inolaz ere ukatu. Halaz ere, zentzuzko azken galdegai horiek agertzen duten indarra eta premia ez dira beti berdinak eta bizitzaren aro bakoitzean aldianaldiko itxura eta sakona erakutsi ohi dute.

Eskolako heziketa-mailari eta adin ezberdinei dagokienean, agerian dago kuestionamenduzko eremu hori pausoka egituratzen dela. Ondorioz, kontu haundiz aztertu beharrekoak izango dira bai ezagupenaren, bainan bai eta ere moralaren eta bereziki erlijiotasunaren garapen-aldi ezberdinak baldintzatzen dituzten elementuak.

Ikasle gazteenek ere badituzte, lehen urteetatik hasita, azken zentzuaren eskakizun larria azaltzen duten bizipenak. Besteak beste, izenda daitezkeen batzuk hauek ditugu: konfidantza, beldurra, maitasuna, gaitzespena, itxaropena, adiskidetasuna, poza, hobena, barkamena, oinazea, zoria, erantzunkizuna, kezka, porrot egitea, jolasa, harridura, bizitzaren sorburua edo hasiera argitu nahia, heriotza, dantza, jaia, liturgikizunak, otoitza...

Bestetik berriz, gizarte-bizitzak berak erantzuna eskatzen duten egoera eta egintzen aurrean ezartzen ditu pertsonak, jarrera zuzena eta erantzunkizunezkoa zein izango ote denaren zalantza sortarazten dietelarik. Kuestio horiek bakoitzaren bizi-inguruari estuki loturik daude. Hona hemen, ikasle gazteenek ere sentitzen dituzten batzuk: bortizkeria, haserrea, zuzentasuna, adiskidetzea, gerra, bakea, aurrerakuntza, etorkizuna, gizarte bilakaera baliobikoa, orain arte izan ez bezelako aukerak eskeintzen, bainan bai eta ere dudamudazko garapenbideak eta itxuraz bazterrezinak diruditen hipotekak agertzen dituena ...

Erlijio Katolikoaren arlotik egiten den ekarpen berezia, curriculum mota aukeragarria eta konfesionala den neurrian, hau dela esan daiteke: aipatutako gizakuestio horiek, batetik, eta bestetik, kristautasunaren barne-muinezko mezua elkarrekin harreman bizian jartzea, mezu hori beti ere bere oinarrizko edukieraz adierazitakoa izan beharko duelarik eta azken zentzuzko eskaintza eta proposamen gisa azaldua.

Eskolaren berenezko eginkizuna bideratzen duen «curriculum» delakoaren barnean, Erlijio Katolikoaren irakaskuntzak zera du xede nagusi: kristau erlijiotasuna ulergarri egitea eta beronen ezagupen esanguratsu eta funtzionala osatzen laguntzea, ondorioz ikasleek fedea-

ANEXO

EDUCACION PRIMARIA
RELIGION CATOLICA

1. INTRODUCCION

El área de Religión abarca el conocimiento de aquellas realidades que versan sobre el sentido último de la vida humana.

A través de narraciones, signos y símbolos, ritos y costumbres, formulaciones racionales y modelos de explicación global, manifestaciones estéticas, instituciones, comportamientos y otras realidades de similar referencia, se da a conocer un determinado ámbito del saber humano, constituído precisamente por el tratamiento de las cuestiones últimas en torno al sentido de la vida humana individual y social.

Cuestiones de esta índole afectan y preocupan indefectiblemente a las personas, si bien en distinta intensidad según los diversos estadios de la vida.

Por lo que a la edad escolar repecta, es evidente que tal espacio de interrogación se va configurando de forma progresiva a lo largo de las diversas etapas educativas. Por esta razón, habrán de tenerse en cuenta los elementos que condicionan las distintas fases del desarrollo evolutivo, tanto en la dimensión cognitiva, como en la moral y en la propiamente religiosa.

Con todo, vivencias que reclaman un último sentido cuestionan ya a los alumnos y alumnas desde sus primeros años, tal y como lo dan a conocer sus propias experiencias de confianza, miedo, amor, rechazo, esperanza, amistad, gozo, culpa, perdón, dolor, suerte, responsabilidad, preocupación, fracaso, juego, asombro, preocupación por el origen y comienzo de la vida, muerte, vivencias de entusiasmo, fiesta, ritos, oración...

Y no sólo es el ámbito privado el que presenta vivencias de denso contenido. También la experiencia social hace sentir situaciones, hechos y dilemas que requieren una respuesta a la hora de plantearse la cuestión de un comportamiento recto y responsable. Se trata de vivencias en clara referencia al entorno: violencia, crispación, justicia, reconcialiación, guerra, paz, progreso, futuro, evolución de la sociedad con posibilidades inusitadas, nuevos retos, serias incertidumbres e hipotecas aparentemente inevitables...

La aportación específica del área de Religión Católica, en cuanto modalidad curricular opcional, de carácter confesional, es precisamente la de propiciar una mutua correlación entre tales interrogantes y el núcleo fundamental del mensaje cristiano, expresado en su contenido esencial y brindado como oferta de sentido.

En el contexto de la competencia escolar a la que se refiere el currículo, la finalidad de la Enseñanza de la Religión Católica es la de clarificar el hecho religioso cristiano y contribuir así a la construcción de un conocimiento significativo y funcional del mismo, en orden

ren eta kulturaren arteko sintesi egoki bat egin ahal izan dezaten. Era horretan, orain aipatu berria izan den asmo nagusi hori eskolaren zereginetatik sortzen da zuzenki. Ondorioz, arlo hau eskolari berari lagungarria zaio, ikasleen gizatasun osoko heziketa bideratzeko orduan (LOGSE 1 art., 1.a), nahiz ikasleak erlijio askatasunean hezitzeko agindua (LOGSE 1 art., 1.b) betetzerakoan.

Horrela gauzak, alor honetako eskaintza erabat legitimagarri gertatzen da, ez bakarrik kristau atxikimenduzko haur, gaztetxo eta gazteentzat, baizik eta edozein ikasleentzat ere, eta bereziki beren gurasoek Erlijio Katolikoaren irakaskuntza eskatu duten neska-mutilentzat.

Hezkuntz-Sistemaren ikasgaiak osatzerakoan lehen-lehenik kontutan hartu izan diren ezagupen-arloak, gizabidezko nahiz teknikazko gaitasunak lantzen dituztenak dira. Hiritarrek gizartean parte hartzeko eta gizartea bera hobetzeko prestakuntza eskeintzen duten arloak ere, izan dute bertan beren lekua.

Euskal Autonomi Elkartearen kasuan, bestetik, nabaria da eskolako curriculum orokorraren barnean intentzio jakin batek izan duen eragina: euskal gizartenortasunaren eraikuntza integrazio sozialaren eginkizunarekin uztartu beharrak.

Aipaturiko iturburu soziologikoaren ikuspegitik, Erlijio arloa kezka eta eginkizun hoien tratamenduari lehentasuna ematen dion eremu bezala agertzen da. Aldi berean, erlijiotasuna gaur arte gure Herriaren historiarako eta Europa osoaren bilakabiderako ere, sustrai eta bultzagarri ukaezina izan denez gero, aipagarria da, gure kultur ondarearen ezagupena behar bezala ziurtatzerakoan, Erlijio-arloaren eskeintzak duen garrantzia.

Erlijio arloak biltzen dituen ezagupen, prozedura, jarrera eta balioak iturri biblikoetan dute beren sorburua eta, aldi berean, eliz elkarteak mendeetan zehar gaurdaino eginik duen biblia-interpretapen bizian.

Bere itxaropenaren arrazoibideak emateko asmoz, kristau fedea, hasiera-hasieratik, bere barne-lotura logikoaren ulerkuntza eta arrazoimenezko oinarriketa bilatzen eta adierazten saiatu da. Hausnarketa sakon horren ondorioa da, hain zuzen ere, bere ekoizpen teologikoa, azken hamarkadetan nabarmen eraberritua eta bere metodoen fidagarritasuna dela eta, behar bezala ziurtatua. Emaitza teologiko horiek osatzen dute, hain zuzen ere, Erlijio arloaren iturburu epistemologikoa, batipat Eskolako Irakaskuntzaren goi mailatarako proposatzen diren edukinak kontutan hartzen badira.

Jakintzak, batez ere Lehen Hezkuntza mailako garapen aldian, ekintzarekin duen lotura hestua onartuz gero, argi dago etapa honetako ikasketa-bideak batez ere erlijio-errealitateen alde operatiboak (esperientziak, bizitapenak, eginkizunak) landu beharko dituela.

Curriculum honetan, horretxegatik, prozedurak azaltzen dira indarturik, beraien bitartez nahiko bait litzateke behar bezalako oreka lortu, orain arte nagusiki edukin kontzeptualak eskeini izan dituen arlo baten barnean.

Azkenik, moral konzientziaren sorrera kontutan izatea eta honen hasierako garapenari eskeini beharreko laguntza, iturburu psikologikoak ematen duen beste eginkizun bat da, dudarik gabe guztiz garrantzitsua.

Iturburu pedagogikoak ikasketa esanguratsuen eraikuntza ziurtatu beharra aldarrikatzen du.

a una síntesis de fe y cultura. De este modo, la intención aludida se da a conocer como rigurosamente escolar y permite una aportación específica a las finalidades educativas últimas del pleno desarrollo de la personalidad de los alumnos y alumnas (LOGSE art.1,1.a) y del ejercicio responsable de su libertad religiosa (LOGSE art.1.1.b).

Por lo mismo, el ofrecimiento del área resulta legitimable, no sólo en referencia a niños, adolescentes y jóvenes de identificación cristiana, sino a todos en general y en concreto a aquellos alumnos y alumnas, para los que sus padres hayan solicitado la enseñanza de la Religión Católica.

Las demandas sociales y culturales, que han sido decisivas a la hora de incluir determiandas áreas de conocimiento dentro del Sistema Educativo, son las que se refieren a capacidades humanas y técnicas, así como también a aquellas que contribuyan a garantizar la participación de los ciudadanos en la sociedad y posibiliten la transformación de la misma.

Junto con ello resalta, por lo que a la Comunidad Autónoma Vasca se refiere, la preocupación por el proceso de construcción de su propia identidad colectiva en armonía con la integración social.

Desde esta fuente sociológica, el área de Religisón es identificable como uno de los espacios en los que el tratamiento de las cuestiones arriba citadas resulta efectivamente prioritario, al tiempo que proporciona el conocimiento del patrimonio cultural de nuestro pueblo y de la historia europea en su integridad, en cuyas raíces y desarrollo subyace, de modo indiscutible, el hecho religioso.

Conocimientos, procedimientos, actitudes y valores abarcados por el área de Religión tienen su origen en la fuente bíblica y en la interpretación viva que de la misma ha hecho la comunidad eclesial a lo largo de los siglos hasta la actualidad.

En el intento de dar razones de la propia esperanza, la fe cristiana, desde su origen, ha buscado su propia comprensión así como la justificación racional de su coherencia. Fruto de esta reflexión es precisamente su producción teológica, notablemente renovada en las últimas décadas y rigurosamente científica en sus métodos. Sus diversas ramas constituyen la fuente epistemológica de la que provienen los saberes propuestos por el área de Religión.

La estrecha vinculación entre el actuar y el conocer, propios de la fase de desarrollo evolutivo correspondiente a la Educación Primaria, hace necesario que los aprendizajes de esta etapa se inicien en el conocimiento experiencial y vivencial de las realidades religiosas.

Por ello mismo, los contenidos llamados «procedimentales» intentan en el actual currículo restaurar el debido equilibrio dentro de un área en que habitualmente han tenido preponderancia contenidos de orden conceptual.

La atención al despertar de la conciencia moral y la contribución a su desarrollo inicial es otra de las aportaciones a tener en cuenta, proveniente asimismo de la fuente psicológica.

La fuente pedagógica insiste en la necesidad de asegurar la construcción de aprendizaje significativos.

Hezkuntza maila ezberdinetako diseinuak bata bestearekin parekatzerakoan, nahiko garbi azalduko zaio edonori Erlijio-arloak erakusten duen progresiozko egitura. Aldi berean, etapa ezberdinak behetik gora zeharkatzen dituen intentzio horren gidaritzapean, errazago erabaki ahal izango dutela irakasleek beraiei bakarrik dagozkien zehaztapenak, hori da lagungarri izan nahiko lukeen curriculum honen ustea. Uste hori egi bihurtuko balitz, irakasleek, neska-mutilen garapen-maila ezberdinak aintzakotzat hartzen dituztela, haurrei nahiz gaztetxoei berauen erlijio-pentsamenduaren eraikuntzan gisaz laguntzeko aukera izango lukete.

Lehen Hezkuntza mailako Erlijio arloaren edukinak batipat erlijiozko pentsamenduaren hizkuntza ezberdinei jarraituz egituratuak izan dira.

Zehaztuz, esan daiteke, hizkuntza horiek hauek direla: «narrazioa» (hau da, biblia edo idazteunaren tradizioa), «kultoa» edo liturgia, «morala» eta «irakaspena» edo dotrina, hau da, fedearen adierazpen arrazoimenezkoa.

Haurtzaroko Hezkuntzako curriculum delakoan azaltzen zaigun «Inguruneko erlijio adierazpenak» izeneko multzoari, Lehen Hezkuntzamailan ondorengo honek ematen dio jarraipena: «Gizartea eta kultura, Eliza, Kristau fedea» izenekoak. Era horretan Eskolako Erlijio-irakaskuntzaren intentzio den fede eta kulturaren arteko elkarrizketari lekua ematen zaio.

Era berean, Lehen Hezkuntzamailako edukin bildumak bere baitan hartzen du «Kristau elkartea bere historian zehar» blokea, bere benetako gaia eta interesa kristau elkartea eta honen bizitza izango direlarik, ez ordea elizaren historia bera. Eliz-kondairaren azterketak Bigarren Mailako Derrigorrezko Heziketan izango du bere garaia.

Ondorioz, etapa hau egituratuko duten edukin blokeak ondoregoak izango dira:

1. Multzoa: Agerkunde edo errebelazio idatzia: Biblia, Salbamenaren historia.
2. Multzoa: Kristau fedearen adierazpen liturgikoa.
3. Multzoa: Portabidea, kristau morala: oinarrizko edukiak.
4. Multzoa: Gizartea eta kultura, Eliza, Kristau fedea.
5. Multzoa: Elizaren fedea.
6. Multzoa: Kristau elkartea bere historian zehar.

Bere bereak dituen edukinak landuz, Erlijio-arloak aportazio baliogarriak bideratzen ditu, gizarteak proposatutako gaitasunak lortuak izan ahal daitezen. Era horretan arlo honek Lehen Hezkuntzaren helburu orokorrei ekarpen berezia egiten die.

Personaren balioari buruzko kristau mezua ezagutzeak, biziki laguntzen die neska-mutilei beren nortasuna aintzat hartzen eta garatzen.

Kristau fedeak berezko dituen harreman-edukiek, pertsonen arteko erlazio horiek orekatuak eta eraikitzaileak izaten laguntzen dute, norberaren autonomia elkarkidetzarekin uztartuz.

Zuzenbide eta adiskidetasunari buruz kristau mezutik ondorioztatzen diren ekarpenek, eztabaidatan jarrera baikorrak erakustera eta diskriminazioak edo bereizkeriak alderatzera bultzatzen dute.

Al comparar los currículos preceptivos del área de Religión Católica en las diversas etapas, los profesores podrán darse cuenta de la progresiva gradación de los mismos. La sucesión de continuidad que se ha pretendido establecer, quisiera permitir que las ulteriores concreciones de centro y de aula, acierten a programar los procesos de enseñanza, que contribuirán eficazmente a la construcción del pensamiento religioso por parte de los alumnos y alumnas, en cada uno de los niveles de desarrollo operatorio.

Los contenidos del área de Religión en Educación Primaria han sido estructurados siguiendo fundamentalmente la pauta de los diversos lenguajes propios del pensamiento religioso.

Se trata en concreto de los lenguajes de la narración (tradición bíblica), del culto, de lo moral y de lo doctrinal o referente a la expresión racional de la fe.

Al aspecto, que en Educación Infantil contemplaba objetos y manifestaciones experienciables en el entorno, corresponde en Educación Primaria el bloque «Sociedad y cultura, Iglesia, Fe cristiana», que inicia así el tratamiento del diálogo fe-cultura, una de las intenciones más genuinas de la Enseñanza Religiosa Escolar.

De igual modo, los contenidos de Educación Primaria incorporan el bloque «La comunidad cristiana en su historia». Contrariamente a lo que la denominación pudiera sugerir, la referencia principal de este bloque temático no es el proceso histórico mismo sino mas bien la comunidad cristiana en medio de la vida; la historia, que será tematizada en Educación Secundaria Obligatoria, es para esta etapa, simplemente, una perspectiva.

En consecuencia, los bloques de contenido que estructuran la etapa son los siguientes:

Bloque nr. 1: La Revelación escrita: la Biblia. La Historia de la Salvación.
Bloque nr. 2: La expresión litúrgica de la fe cristiana.
Bloque nr. 3: Comportamiento, moral cristiana: contenidos básicos.
Bloque nr. 4: Sociedad y cultura, Iglesia, Fe cristiana.
Bloque nr. 5: La fe de la Iglesia.
Bloque nr. 6: La comunidad cristiana en su historia.

Mediante el tratamiento de los contenidos aludidos, a través de los cuales se busca promover las capacidades propuestas para la etapa, el Area de Religión efectúa su contribución específica a los objetivos de la Educación Primaria.

El conocimiento del mensaje cristiano en torno al valor de la persona, contribuye notablemente a desarrollar un nivel satisfactorio de confianza en sí mismo y de aprecio a los demás.

Contenidos de inserción en la sociedad, propios de la fe cristiana, fomentan el establecimiento de relaciones equilibradas y constructivas con los demás, armonizando la autonomía personal con actitudes de colaboración.

Aportaciones resultantes del mensaje cristiano sobre la justicia y la reconciliación estimulan a actuar positivamente en medio de conflictos y a rechazar discriminaciones.

Biblia, kultura barnean, lehen mailako dokumentu bezala onartzeak, hala nola kultur ondarea osatzen duten erlijiozko adierazpenak ezagutzea, giza aberastasun orokor hori estimatzea eta atseginez jaso ahal izatea errazten du. Era berean, kultur ondarearen zaintzan eta hobekuntzan parte hartzeko gaitasuna indartu egiten da.

Azken zentzu baten bila norbere esperientziatik sortzen diren galdera horien ardura, Erlijio alorrak beretzat ezarrita duen lehen mailako xede bat da. Horrela, Lehen Mailako Heziketak, era guztietako problemak identifikatzeko asmoak dituelarik, aportazio zehatzak jasoten ditu, hain zuzen ere, sakoneko galdera horiei tratamendu eta irtenbide egokiak eman ahal izateko.

Bibliari egokitutako testu azterketak, ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta ekoizteko eta, bestetik, jasotako infrmazioa behar bezala interpretatzeko gaitasunekin du zerikusirik.

Identifikaziozko ereduen eskeintza, alor honi dagokiona, batipat etapa honetako ikasleen grapenerako egokiturik dago eta beren moral heziketarako lagungarri baliogarria da.

Azkenik, bizitza eta elkarkidetasuna oinarritzen dituzten balioak estimatu eta norbereganatzerakoan, gizakiari eta gizarteari buruzko kristau mezua deigarri eta eragile indartsua dela aitatzea, kulturak berak, kritika guztiak barne, ziurta dezakeen baiztapen historikoa da.

2. HELBURU OROKORRAK

Lehen Hezkuntza mailan zehar Erlijio Katolikoaren Irakaskuntzak helburutzat hartzen du, behar bezalako laguntzak eskeintzea ikasleek ondorengo gaitasunak lor ditzaten:

1. Biblia-testu arruntenak zuzen interpretatu ahal izateko kriterio egokiez baliatuz, kristautasunaren muinezko gertakariari buruz Liburu Santuetan aditzera ematen diren datu nagusiak ulertu eta elkarrekin uztartu, eta horrekin batera Idazteuna balioztatu, Jainkoaren gizadiarekiko Agerkunde moduan eta giza ondarearen dokumentu bezala.

2. Eguneroko bizitzan daude datu sinbolikoen ezagupena dela bide eta Jainkoaren salbamenezko egintzaren agerpenetan oinarriturik, kristau liturgiaren funtsezko zeinu eta sinboloak zuzen interpretatu.

3. Elizak gaurdaino bere sinismena aditzera emateko erabili dituen tradiziozko aitorpenen zentzua eta esanahia ulertu eta norberaren bizitapen eta komentzimendu erlijiozkoak adierazterakoan, formula beroietaz baliatzeko gauza izan.

4. Norberaren bizitapenetatik abiatuz, den guztiaren azken zentzu baten inguruko falderak moldatu, eta era berean azaldutako galderei kristau fedeak eskeintzen dizkien erantzunak aukeratu eta aztertu.

5. Talde-ekintzak antolatzerakoan eta gauzatzerakoan partaide izan, norberaren autonomia kristau fedeak bere-berean duen lagun hurkoarekiko jarrerarekin armonizatuz, partaidetzako talde ezberdinetan (familian, lagun taldean, eskolan, elizan, gizartean...) agertzen diren egitura ezberdinak onartuz eta behar bezala erabakitako arauak betetzerakoan disziplinari eutsiz.

El conocimiento de la Biblia como documento de primer orden dentro de la cultura humana, así como la identificación de datos religiosos integrantes del entorno, facilitan el aprecio y el disfrute del patrimonio cultural, al tiempo que invitan a colaborar en su conservación y mejora.

Interrogantes de sentido planteados desde la propia experiencia constituyen uno de los intereses prioritarios del área de Religión por lo que respecta a la Educación Primaria, interesada en la identificación de problemas de todo orden con vistas a su tratamiento y solución.

El conocimiento inicial de los criterios más básicos de interpretación bíblica es una concreción del objetivo de comprender y producir textos orales y escritos e interpretar debidamente la información recibida.

La oferta de modelos de identificación, propia del área se ajusta especialmente al desarrollo evolutivo de los alumnos y alumnas de esta etapa y contribuye a su educación moral.

Por último, la interpretación cristiana del hombre y de la sociedad aseguran el aprecio de los valores básicos que rigen la vida y la convivencia.

2. OBJETIVOS GENERALES

La Enseñanza de la Religión Católica en la Etapa de Educación Primaria tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las capacidades siguientes:

1. Comprender y organizar los hechos fundamentales del acontecimiento cristiano narrado en la Biblia, aplicando criterios adecuados para interpretar correctamente los textos bíblicos más sencillos y llegando a apreciar la Sagrada Escritura como expresión de la Revelación de Dios a los hombres y como documento de la cultura humana.

2. Interpretar correctamente signos y símbolos fundamentales de la liturgia cristiana, basándose en el conocimiento de datos simbólicos presentes en la experiencia diaria, así como en manifestaciones de la acción de Dios a través de la Historia de la Salvación.

3. Comprender el sentido y significado de las fórmulas tradicionales con las que la Iglesia ha expresado hasta foy su fe y utilizarlas como referentes válidos para expresar los contenidos de las propias experiencias y convicciones religiosas.

4. Plantearse desde la propia experiencia interrogantes en torno a un sentido último, así como seleccionar y analizar las principales respuestas que la fe cristiana ofrece a las preguntas formuladas.

5. Colaborar en la planificación y realización de actividades en grupo, armonizando la autonomía personal con actitudes sociales de colaboración basadas en los contenidos relacionales propios de la fe cristiana, asumiendo la existencia de estructuras diferenciadas dentro de los diversos grupos de pertenencia (familia, grupo, escuela, iglesia, sociedad...) y manteniendo solidaridad en las relaciones y disciplina en el cumplimiento de normas debidamente establecidas.

6. Giza-harremanetan (senitartean, lagun taldeetan, eskolan, elizan, gizartean...) eztabaidak eta tirabirak sortzen direla onartu, zuzentasunaren eta bakearen lorpenerako kristau mezutik datozen , ekarpenak aurkituz, baita bakoitzaren adinari dagozkion ahalbideetatik gatazken tratamendurako eta gaindikuntzarako bere laguntza eskeiniz ere.

7. Pertsonaren garapenaren eta gizarte-pakebidearen oinarri diren balioak ezagutu eta konpartitu, era berean balio hoiek gizakiaren eta gizartearen kristau ikuspegiarekin duten erlazioaz jabetu eta, bakoitzaren garapen-mailako neurrian, norbere ekintzak eta besteenak kritikoki aztertzeko eta komentzimendu pertsonalen araberako jokabideak azaltzeko gauza izan.

8. Beren eragina gizabiderako eraginkorra gertatu eta horretxeagatik kristau izakerarentzat eredu bilakatu diren Biblia-historiako eta Elizaren historiako gertakari eta pertsonaiekin sintonizatu eta jarraibide hoietaz egin dadin balorapenarekin bat etorriz, gisaz ihardun.

9. Bere inguruko kultur-agerpenen artean erlijiozkoak direnak izendatu eta garbi interpretatu, beroiek eragineko belaunadikoentzako izan duten eta egungoentzako duten esanahiaz jabetuz.

10. Norberaren ahalmen fisiko eta psikikoak modu baikorrean baloratu eta beroien garapenerako konpromezua hartu, era berean bakoitzaren mugapenak onartu norberarekiko autokonfidantzan eta besteekiko balorapenetan nahikozko maila bat gauzatu, pertsonaren balioaz kristau mezuak dioenarekin bat etorriz beti ere.

11. Euskal gizartean gehien sumatzen diren kezka orokorrenak (baketzea, hizkuntz eta kultur-gatazkak, zuzentasun nahia, ingurugiroaren zaintza...) kristau fedearen barne-muinarekin elkarlotu, modu berez besteekiko eta ingururarekiko harremanetarako eredu baikor eta eragindorrak aurkitu.

3. EDUKINAK.

1. MULTZOA: AGERKUNDE EDO ERREBELAZIO IDATZIA: BIBLIA. SALBAMENAREN HISTORIA

Edukin kontzeptualak.

1. Biblia, historikoki eta kulturalki identifika daitekeen liburu multzoa: sailkapena, liburu garrantzitsuenen izenak, idazleak, aldiak, lekuak, giro erlijiosoa eta politikoa, gaiak...

2. Jesusen izakera, bizitza eta mezuaren barnemuina aditzera ematen duten berak egindakoak eta esandakoak, bere ekintzak eta hitzak.

3. Biblian kontatzen diren Salbamenaren Historiako ekintzarik nagusienak: munduaren sorrera, lehengurasoen erlijio-esperientzia edo beraiei eginiko deia, herri aukeratuari egindako agintzariak, exodoa edo askapena, itun edo elkargoa ... eta beste guztien gainetik, Jesusen heriotza eta biztuera, munduaren salbamenerako asmoaren agerkari eta behin-betiko burutzapenaren hasiera denez.

4. Elizak testu biblikoaren interpretazioa egiterakoan kontutan izaten dituen oinarrizko irizpideak: literatur egitura, gizarte eta kultur giroa testuinguru direnez, Idazteunaren zentzuak, Idazteun osoaren batasuna...

5. Biblia, Jainkoak gizakiei egindako Agerkundearen esperientzia jasotzen duen adierazpen idatzia: oinarriz-

6. Asumir la existencia de diferencias y tensiones en las relaciones sociales (familia, grupos, escuela, iglesia, sociedad...) descubrir las aportaciones que resultan del mensaje cristiano sobre la justicia y la reconcialiación y contribuir desde posibilidades ajustadas a la edad al tratamiento y a la superación de conflictos.

7. Conocer y compartir los valores en que se fundamentan el desarrollo de la persona y la paz social, así como la relación de los mismos con la interpretación cristiana del hombre y de la sociedad, siendo capaz, desde el propio nivel de desarrollo de pronunciarse críticamente ante hechos propios y ajenos y de actuar de forma coherente con las propias convicciones.

8. Sintonizar con personas y hechos de la historia bíblica y de la historia de la iglesia, cuya influencia haya resultado ejemplarmente humanizadora y que por ello se hayan constituído en modelos de identificación para la existencia cristiana, así como actuar de acuerdo con la valoración que de dichos modelos se realice.

9. Identificar las manifestaciones culturales de contenido religioso presentes en el entorno, e interpretarlas debidamente haciéndose cargo de su significado tanto para las generaciones pasadas como para la actual.

10. Valorar positivamente y comprometerse en el desarrollo de las propias capacidades físicas y psíquicas y aceptar las propias limitaciones desarrollando un nivel suficiente de confianza en sí mismo y de aprecio a los demás en consonancia con el mensaje cristiano sobre el valor de la persona.

11. Relacionar las inquietudes globales más sentidas en la Sociedad Vasca, (pacificación, conflictos lingüísticos y culturales, justicia, conservación de la naturaleza...) con el núcleo de la fe cristiana, y descubrir modelos de acción positiva en las relaciones con los demás y con el medio ambiente.

3. CONTENIDOS

BLOQUE 1. LA REVELACION ESCRITA: LA BIBLIA. LA HISTORIA DE LA SALVACION

Contenidos conceptuales.

1. La Biblia como conjunto de libros histórica y culturalmente identificables: clasificación, nombre de los libros más importantes, sus autores, épocas, lugares, ambiente religioso y político, temas de que tratan...

2. Hechos y palabras de Jesús que definen lo esencial de su persona, su vida y su mensaje.

3. Hechos fundamentales de la Historia de la Salvación narrados en la Biblia: creación, elección, promesa, alianza, liberación, muerte y resurrección de Jesús como revelación y realización definitiva del designio de salvación universal...

4. Criterios elementales que la Iglesia tiene en cuenta en la interpretación del texto bíblico: estructura literaria, contexto histórico y cultural, sentidos de la Escritura, unidad de la Escritura...

5. La Biblia como Revelación de Dios a los hombres: conceptos básicos de revelación, transmisión, inspira-

ko kontzeptu batzu, hala nola agerkundea, transmisioa, inspirazioa: idazteunaren egia; Bibliaren esanahia Elizarentzat; Bibliaren erabilera...

Prozedurazko edukinak.

A) Biblia testuaren ulerkuntza

1. Testu biblikoen lokalizazioa ohizkoak diren liburu izen, laburdura eta «aipamenen» bidez.

2. Testamendu Berriko testuak lehen kristau elkartearen historia edo esperientziaren testuinguruan ezarri.

B) Testu-erlazioen edo testuek agertzen dituzten harremanen moldakuntza.

3. Testu biblikoen eta kristauen esperientziaren arteko erlazioen zehaztapena.

4. Testamendu Berriko testuen eta dagozkien Testamendu Zaharreko ereduen arteko erlazioa zehaztu.

Jarrerazko edukinak.

A) Biblia estimatzen jakin

1. Kristauentzat erlijiozko balioa duenez, Biblia errespetatu.

2. Bibliak giza-historian zehar izan duen eragin gizatartzaileaz jabetu.

3. Sinestunentzat...Biblia estimagarri egin, Jainkoak gizakiei egindako berenezko agerpenaren (Hitzaren) adierazgarri denez.

B) Bibliako tradizioaren onarpena

4. Idazteunaren edukiei eta mezuari arrera ona egin, gutxienez biblia arretaz aztertzeko eta bere ekarpenak kontutan hartzeko.

2. MULTZOA: KRISTAU FEDEAREN ADIERAZPEN LITURGIKOA

Edukin kontzeptualak.

1. Elizaren Sakramentuak: eguneroko bizitzan eragina duten sinboloak, gizakiok sakramentuen zeinuetan aditzera ematen ditugun barne-jarrerak, sakramentu bakoitzaren zeinuek gogora erazten dituen salbamenekintzak eta heuen arketipoak Salbamenaren historian. Zazpi sakramentuak: bakoitzaren egitura eta ospakizunaren moldakuntza. Sakramentua: hasierako kontzeptu orokor erraza eta deskribagarria.

2. Liturgi Urtearen eta Salbamen Historiaren ospakizuna urtean zehar: zeinu eta sinbolo adierazkorrak, hauen bidez gogortzen eta aditzera emten diren gertakizun salbagarriak, liturgi-aldi edo aro bakoitzaren esanahia eta aldarrikapena. Liturgi-urtearen egitura eta moldakuntza.

3. Elizaren jai egunak: Liturgi-urteko jai nagusienak eta horietako egun haundi bakoitzean ospatzen duguna. Igandea, kristau elkartearen jatorrizko jaia. Mariaren jairik nagusienak eta kristau fedearen muinarekin duten zerikusia. Santuen jaiak.

4. Otoitza, norberarena nahiz Elizarena: norbere bizitapenen adierazpena, otoitz egiteko eta ezberdinei buruz hainbat argibide: kantuz otoitza egin, olerki edo narrazioen laguntzaz baliatu, adierazpen mota ezberdinak erabili (gorputz hizkuntza, hizkuntza plastikoa, ikonikoa, musikala...) Otoitz erdedu nagusienak. Jainkoari otoitza eta bere zentzua. Andre Maria, Jaunaren

ción, verdad de las Sagradas Escrituras; significado de la Biblia para la Iglesia, su utilización...

Contenidos procedimentales.

A) Comprensión del texto bíblico.

1. Localización de los textos bíblicos mediante las «citas» convencionales.

2. Contextualización de los textos del Nuevo Testamento en la historia o la experiencia de la comunidad cristiana.

B) Determinación de relaciones en y desde el texto bíblico.

3. Establecimiento de relaciones entre los textos bíblicos y la experiencia de los cristianos.

4. Determinación de relaciones entre textos del Nuevo Testamento y sus correspondientes «tipos» o modelos del Antiguo Testamento.

Contenidos actitudinales.

A) Estima de la Biblia.

1. Respeto hacia la Biblia en cuanto que es objeto de valoración religiosa por parte de los cristianos.

2. Percibir la importancia de la influencia humanizadora que la Biblia ha tenido a lo largo de la historia humana.

3. Para los creyentes, valorar la Biblia en cuanto que es manifestación (Palabra) de Dios a los hombres.

B) Receptividad positiva de la tradición bíblica.

4. Respuesta positiva a los contenidos y al Mensaje Bíblico, prestándole la atención necesaria para, al menos, examinarla con atención y tener en cuenta sus aportaciones.

BLOQUE 2. LA EXPRESION LITURGICA DE LA FE CRISTIANA

Contenidos conceptuales.

1. Los Sacramentos de la Iglesia: elementos simbólicos presentes en la vida diaria, actitudes que expresa el hombre en cada uno de los signos sacramentales, acciones salvíficas expresadas en cada signo sacramental y sus arquetipos en la Historia de la Salvación. Principales signos y estructura de la celebración de cada uno de los siete sacramentos. Concepto general de sacramento.

2. El año litúrgico y la conmemoración de la Historia de la Salvación: signos y símbolos en los que se expresa lo significado, significación de cada uno de los tiempos litúrgicos. Entructura del año litúrgico.

3. Las fiestas religiosas y su significación: lo que se celebra en cada una de las fiestas del año litúrgico. El Domingo, la fiesta cristiana por excelencia. Principales fiestas de María y sus relaciones con el núcleo de la fe cristiana. Las fiestas de los Santos.

4. Oración personal y oración de la Iglesia: expresión y comunicación de vivencias, sugerencias sobre modos concretos de hacer oración con el refuerzo del canto, a base de poemas o narraciones, por medio de los diversos lenguajes expresivos (corporal, plástico, icónico, musical...) La Oración a Dios, su sentido. Modelos principales de oración. La oración a María, la

Amari otoitza. Santuei otoitza. Debozioak edo eraspenak.

Prozedurazko edukinak.

A) Liturgikizunetako zeinu eta ekintzak sor erazten dituzten eralzioak finkatu

1. Liturgikizunen eta hauen osagarri sinbolikoek edo hitzek edota gorputzezko adierazpenek eguneroko bizitzan oraindik orain ere azaltzen dutenaren arteko erlazioak zehaztu.

2. Zeinu edo ekintza liturgikoen eta beraien arketipo edo erreferentzi diren Bibliako adierazpen edo ekintzen arteko erlazioak bereiztu.

B) Liturgiako zeinu eta ekintzak ulergarri egiten dituen testuinguruan ezarri

3. Zeinu eta egintza liturgikoak, sortu ziren garai historikoaren eremura eraman..

Jarrerazko edukinak.

A) Liturgikizunetan parte hartzeko gauza izan

1. Liturgikizunak burutzeko laguntza eskeini.

2. Adierazpen liturgikoa errespetatu, nahiz eta zeinuen erlijiozko esanahiarekin bat ez etorri.

B) Liturgiaren ederra atsegin ukan

3. Liturgiak biltzen dituen osagarri estetikoak ederrestu eta bide batez liturgikizunetan gozamenez parte hartzeko gauza izan.

C) Liturgiak azaltzen dituen bai antropologia mailako eta bai teologia mailako balioak bereganatu

4. Gizakiok, agirian dagoenez, gure bizitapen indartsuenak ohikune eta sinboloetan aditzera ematea eta ospatzea beharrezkoa dugula ulertu eta horrekin batera errituek bakoitzaren nahiz gizartearen bizitzan duten garrantzia onartu.

5. Liturgi-zeinuak balioztatu, beraien bitartez berritzen bait dira Jainkoaren beraren presentzia eta gizasalbamenerako egintza.

3. MULTZOA: PORTABIDEA, KRISTAU MORALA: OINARRIZKO EDUKIAK

Edukin kontzeptualak.

1. Pertsona mailako kristau morala: gizakiak, gizon eta emakume bakoitzak, bere buruarekin eta besteekin dituen harremanak, maitasunaren agindua eta honen zehaztapena gizabizitzan (biziari zor zaion errespetua eta behar bezala suztatua gerta dadin eskeini behar zaion laguntza, besteren ondasunak errespetatu beharra, norberarenak eskueran eduki beharra, elkarrenganako harremanek eskatzen duten egiatasuna...) Norberak, pertsona bezala, Jainko pertsonal batekin dituen harremanak (lehenbiziko hiru Aginduak). Aginduak, Jesusek bizitzaren aurrean izan zituen funtsezko jarreren ikuspegitik. Zoriontasunak, kristau jarrera eta jokabidearen ideial inspiratzaile eta helburu.

2. Gizarte mailako morala, kristau mezuaren oinarrizko irizpideak kontutan izanik: ingurunean soma daitezkeen hainbat gizarte-mailako arazo larrien kristau interpretazioa (jabegoa, bere erabilpena eta bere mugak, lana eta lan falta, greba, kaleko indarkeria, sistemen indarkeria...). Solidaritza, irizpide nagusia: beronen zehaztapena gizarte harremanetan...

3. Askatasuna eta erantzunkizuna, etikazko erreflexioan kontutan izan beharrekoak, kontzientzia eta eritzi moralen oinarritzea, hutsegitea, errua eta pekatua,

Madre del Señor. La oración a los santos. Las devociones.

Contenidos procedimentales.

A) Determinación de relaciones a partir de signos y acciones litúrgicas.

1. Establecimiento de relaciones entre los signos litúrgicos y aquello que, en la vida diaria, expresan o producen los elementos, palabras o gestos de que constan.

2. Determinación de relaciones entre signos o acciones litúrgicas y las expresiones o hechos bíblicos que les sirven de arquetipo o de referencia.

B) Contextualización de signos y acciones litúrgicas.

3. Contextualización de signos o acciones litúrgicas en el marco histórico en el que surgieron.

Contenidos actitudinales.

A) Participación en la liturgia.

1. Colaborar en la acción o participación litúrgica.

2. Respeto a la expresión litúrgica, aunque no se comparta el significado de los signos.

B) Disfrute estético de la liturgia.

3. Aprecio de los elementos estéticos presentes en la acción litúrgica y disfrute de los mismos desde este punto de vista.

C) Estima del valor antropológico y teológico de la liturgia.

4. Valoración positiva y comprensiva de la ritualidad y de la dimensión simbólica de la vida humana individual y social.

5. Valoración de los signos litúrgicos como acciones que actualizan la presencia y la acción salvadora de Dios para con el hombre.

BLOQUE 3. COMPORTAMIENTO, MORAL CRISTIANA: CONTENIDOS BASICOS

Contenidos conceptuales.

1. Moral cristiana de la persona: la relación de la persona consigo mismo y con los demás, el mandamiento del amor y sus concreciones en la vida real (respeto y promoción de la vida, respeto de los bienes ajenos, disponibilidad de los propios, veracidad en la comunicación...) La relación de la persona con un Dios personal (los tres primeros mandamientos) Los mandamientos a la luz de las actitudes fundamentales de Jesús ante la vida. Las Bienaventuranzas como ideal inspirador y meta de las actitudes y de la conducta cristiana.

2. La moral social a partir de los principios del mensaje cristiano: la interpretación cristiana de las cuestiones sociales, económicas, laborales...perceptibles en el entorno (propiedad, trabajo y sus escasez, huelga, violencia callejera, violencia de sistemas...) Concreciones del principio fundamental de la solidaridad en las relaciones sociales.

3. Libertad y reponsabilidad, elementos de reflexión ética, conciencia y fundamentación de juicios morales, equivocación, culpa y pecado, lo propio del actuar cris-

kristau jokabideak berenezko duena, Moral orokorrari buruzko kuestio nagusiak.

Prozedurazko edukinak.

A) Gertakizunen behaketa eta azterketa etikazko irizpide nagusienak direla gidari

1. Pertsonen edo taldeen arteko nahiz interesen edo balioen arteko tira-bira eta gatazka, bainan bai eta ere konponbide zuzenak bideratzeko nahia erakusten duten hainbat egoera behar bezala deskribatu.

B) Kristau jokabidearen orientagarri diren irizpideen ulerketa

2. Kristau jokabide arauen zein ereduen eta Bibliako jarraibide eta erakutsien arteko eralzioa finkatu.

3. Kristau egintzen, arauen zein jokabide-ereduen eta egintza liturgikoen (edota beraunen ondorioen) arteko erlazioak finkatu.

4. Jokabide-arauak eta ereduak historiaren eta kristau esperientziaren testuinguruan aztertuz ulertu.

C) Eritzi moralen oinarriketa

5. Kristau jokabide-arauak eta ereduak gaur eguneko bizitzako egoera jakinei egokitu.

6. Jokabide batek merezi omen duen onarpena edo gaitzespena arrazoimenez oinarritu.

Jarrerazko edukinak.

A) Etikarako sena indartu eta moral-mailakadan garapena ahalbideratu.

1. Pertsonaren berezko balioa onartu, giza-burutzapena bait da egintza moral ororen xedea.

2. Balio-eskala edo mailakada baten antolakuntza, non identifika eta koka daitezen pertsona bera, besteak (lagun hurkoa, ingurukoak), gizartea, eta guztien ongia...

3. Norbere jokabidea gisaz oinarritua eta erizpide propioen araberakoa izan behar duela, estimazioz onartu.

4. Gatazkak giza-harremanen osakitzat jotzea eta beraunen artean jarrera baketzailea azaltzea.

B) Legezko dena estimatzen jakin

5. Ezarritako legeei begirunea, pertsonaren balioaren, guztien ongiaren edota Jainkoaren eta gizakiaren arteko Itunaren adierazgarri diren neurrian.

4. MULTZOA: GIZARTEA ETA KULTURA, ELIZA, KRISTAU FEDEA.

Edukin kontzeptualak.

1. Inguruneko kultur-ondarean aurkitzen diren adierazpenak, egintzak, gertakizunak (etnografikoak, plastikoak, ikonikoak, folklorikoak, ludikoak, musikalak, arkitektonikoak...)

2. Erlijiozko jarrerak eta edukiak adierazten dituzten euskal ondareko nahiz beste herrietako narrazioak, kondairak edo mitoak, nahiz eta horrelako tradizioek kristau fedearekin lotura zuzenik ez izan...

3. Euskal gizartearen zenbait arazo nagusi eta beroiek kristauengan, Euskal Herriko Elizarengan eta Eliza Unibertsalarengan duten eragina.

4. Kulturaren eta fedearen arteko adiskidetasuna garbi adierazten duten pertsonak eta erakundeak, historian zeharrekoak nahiz gaurkoak. Gauza bera euskal

tiano, nociones fundamentales de Moral General.

Contenidos procedimentales.

A) Observación y estudio de acontencimientos desde perspectivas éticas elementales

1. Descripción de situaciones observadas, en las que se den a conocer personas, grupos, intereses y valores en conflicto, así como comportamientos justos y constructivos.

B) Interpretación de motivaciones cristianas de comportamiento

2. Determinación de relaciones entre normas y modelos de conducta cristiana y los modelos y proposiciones bíblicas.

3. Determinación de relaciones entre acciones, normas y modelos de conducta cristiana y las acciones y comportamiento litúrgicos o sus efectos.

4. Contextualización en la historia y la experiencia cristiana de normas y modelos de conducta.

C) Fundamentación de juicios morales

5. Aplicación de normas y modelos cristianos de conducta a situaciones concretas de la vida actual.

6. Justificación razonada de la aceptación o rechazo de una determinada forma de conducta.

Contenidos actitudinales.

A) Sensibilidad y progreso ético y moral

1. Valoración de la persona humana, cuya construcción es el fin de toda acción moral.

2. Organización de una escala de valores en la que se hallen identificados y situados la propia persona, la de los demás (el prójimo), la sociedad y el bien común...

3. Valoración de la necesidad de actuar conforme a criterios, en actuaciones coherentes con las propias convicciones.

4. Estimación de los conflictos en cuanto integrantes de las relaciones humanas, y actitud pacificadora con respecto a los mismos.

B) Estimación de la legalidad

